

IRUÑEKO HIRIA NAZIOARTEKO XV. XAKE TXAPELKETA (TORNEO ITXIA). 2005.go abenduaren 23tik 29ra.

Iruñeko Oberena taldeak antolatutako Xake Torneo itxi honek 60.000 euroko aurrekontua izan du. Aurten, jokalarien batz besteko ELOa 2.642 puntukoa izan da. Zazpi egunetan, denak denen aurka lehiatu dira, Iruña Park Hotelean. Txapelketa hau ACP Tour zirkuituan dago, bigarren urtez (munduko torneorik onenak barneratzen ditu).

Ruslan Ponomariov ukraniarra izan da garaile. Zviad Izoria georgiarra, Jan Timman holandarra eta Oscar De la Riva Andorrako nazionalitatea hartu duen espainiarra gaitzitu zituen (hirurak sailkapeneko azkenak geratu dira). Gaitzitzekoekin berdinketa lortu zuen. Orotara, 5 puntu.

Pentala Harikrishna indiarrek paper ona egin du (bigarren postua, 4'5 puntuz). Laurent Fressinet frantziarraren eta Oscar De la Rivaren aurrean garaipena lortu zuen. Beste bost partidetan, ordea, berdinketa.

Ivan Cheparinov bulgariarrak ere 4'5 puntu egin zituen (hirugarrena geratzeko). Zviad Izoriari eta Oscar De la Rivari irabazi zien. Bost berdinketa ere lortu zituen.

Sergei Tiviakov holandarrak ere galdu gabe bukatu zuen. Baina soilik Oscar De la Riva azkeneko sailkatua gaitzitu zuen. Bere ELOa kontutan hartuta (2.700 puntu), gehiago espero zen beragandik.

Dena den, dezepziorik handiena Jan Timman holandarra izan zen. Xakean legenda bizia den jokalaria ez zuen garaipenik lortu eta azkenaurreko postuarekin konformatu behar izan zuen (2 puntu).

Beste puntu negatiboa borrokarik gabeko partida batzuek osatu zuten. Gehiegi izan ziren. Zer erran titulua jokoan zuen Ponomariov-Harikrishna azkeneko ihardunaldiko partidaz. Denbora laburrean berdinketa adostu izana, taula gainean ezer egonen ez balitz bezala, etsigarria izan zen. Baina xakeak, gauza on anitz baditu ere, horrelako aurpegia erakusten du batzutan. Zer egingen dugu?

EMAITZAK.

1. ihardunaldia (2005-12-23).							
		Izena	ELOa	Emaizta		Izena	ELOa
1	MH	DE LA RIVA AGUADO Oscar	2541	0 – 1	MH	CHEPARINOV Ivan	2618 8
2	MH	HARIKRISHNA P	2673	½ - ½	MH	TIMMAN Jan H	2630 7
3	MH	FRESSINET Laurent	2624	½ - ½	MH	PONOMARIOV Ruslan	2704 6
4	MH	IZORIA Zviad	2646	½ - ½	MH	TIVIAKOV Sergei	2700 5

2. ihardunaldia (2005-12-24).							
		Izena	ELOa	Eraitza		Izena	ELOa
8	MH	CHEPARINOV Ivan	2618	½ - ½	MH	TIVIAKOV Sergei	2700
6	MH	PONOMARIOV Ruslan	2704	1 - 0	MH	IZORIA Zviad	2646
7	MH	TIMMAN Jan H	2630	0 - 1	MH	FRESSINET Laurent	2624
1	MH	DE LA RIVA AGUADO Oscar	2541	0 - 1	MH	HARIKRISHNA P	2673
3. ihardunaldia (2005-12-25).							
		Izena	ELOa	Eraitza		Izena	ELOa
2	MH	HARIKRISHNA P	2673	½ - ½	MH	CHEPARINOV Ivan	2618
3	MH	FRESSINET Laurent	2624	½ - ½	MH	DE LA RIVA AGUADO Oscar	2541
4	MH	IZORIA Zviad	2646	1 - 0	MH	TIMMAN Jan H	2630
5	MH	TIVIAKOV Sergei	2700	½ - ½	MH	PONOMARIOV Ruslan	2704
4. ihardunaldia (2005-12-26).							
		Izena	ELOa	Eraitza		Izena	ELOa
8	MH	CHEPARINOV Ivan	2618	½ - ½	MH	PONOMARIOV Ruslan	2704
7	MH	TIMMAN Jan H	2630	½ - ½	MH	TIVIAKOV Sergei	2700
1	MH	DE LA RIVA AGUADO Oscar	2541	½ - ½	MH	IZORIA Zviad	2646
2	MH	HARIKRISHNA P	2673	1 - 0	MH	FRESSINET Laurent	2624
5. ihardunaldia (2005-12-27).							
		Izena	ELOa	Eraitza		Izena	ELOa
3	MH	FRESSINET Laurent	2624	½ - ½	MH	CHEPARINOV Ivan	2618
4	MH	IZORIA Zviad	2646	½ - ½	MH	HARIKRISHNA P	2673
5	MH	TIVIAKOV Sergei	2700	1 - 0	MH	DE LA RIVA AGUADO Oscar	2541
6	MH	PONOMARIOV Ruslan	2704	1 - 0	MH	TIMMAN Jan H	2630
6. ihardunaldia (2005-12-28).							
		Izena	ELOa	Eraitza		Izena	ELOa
8	MH	CHEPARINOV Ivan	2618	½ - ½	MH	TIMMAN Jan H	2630
1	MH	DE LA RIVA AGUADO Oscar	2541	0 - 1	MH	PONOMARIOV Ruslan	2704
2	MH	HARIKRISHNA P	2673	½ - ½	MH	TIVIAKOV Sergei	2700
3	MH	FRESSINET Laurent	2624	½ - ½	MH	IZORIA Zviad	2646
7. ihardunaldia (2005-12-29).							
		Izena	ELOa	Eraitza		Izena	ELOa
4	MH	IZORIA Zviad	2646	0 - 1	MH	CHEPARINOV Ivan	2618
5	MH	TIVIAKOV Sergei	2700	½ - ½	MH	FRESSINET Laurent	2624
6	MH	PONOMARIOV Ruslan	2704	½ - ½	MH	HARIKRISHNA P	2673
7	MH	TIMMAN Jan H	2630	½ - ½	MH	DE LA RIVA AGUADO Oscar	2541

AZKENEKO SAILKAPENA.

1) Ruslan Ponomariov (Ukrania) – 5 puntu.

2) Pentala Harikrishna (India) – 4'5 puntu.

3) Ivan Cheparinov (Bulgaria) – 4'5 puntu.

4) Sergei Tiviakov (Holanda) – 4 puntu.

5) Laurent Fressinet (Frantzia) – 3'5 puntu.

6) Zviad Izoria (Georgia) – 3 puntu.

7) Jan Timman (Holanda) – 2 puntu.

8) Oscar De la Riva Aguado (Andorra) – 1'5 puntu.

2005-12-29.